



# URTEROKO LANA

Bixente Barandiaran

I

Berriro astera noa  
gogozko lanean  
lagunak nai nituzke  
iñora noanean  
al dana egingo det nik  
umore onean  
errezago sortzen zait  
ola nagonean.

II

Ondo etorritzen da  
urteroko lana  
pensatuaz nola dedan  
au zuek emana  
saiatuko naiz egiten  
ontan al dedana  
zueri laguntzea det  
komeni zaidana.

III

Apaltzera joateko  
zuek deitutzean  
alaitasun bat sortu zan  
neure biotzean  
Errenteriko lagunez  
bururatutzean  
pena da egon bearra  
gau ortan etxean.

IV

Badakizute gaudela  
urtetan igota  
medikuak arratsean  
etxean diota  
osasunarire kaso  
egin bearra dago ta  
barkatu nazute danok  
ni penaz nago ta.

V

Amaika pesta eder  
ikusia det nik  
ez nuan pensatuzten  
bukatuko zanik  
bañan oraintxe nago  
obenak emanik  
ez dadukat ba lenago  
egindako penik.

VI

Lenago nai genduan  
guk ere zartzea  
orain naikoa degu  
pensatzen jartzea  
alperrikan nola degun  
jenioz txartzea  
obe degu emandakoak  
umorez artzea.

VII

Askotan konturatutzen  
gerade berandu  
nere gixa au pensatzen  
sari naiz egondu  
gaur gertatzen diranak  
burutik ezin kendu  
zer atsegiña litzaken  
pakea bagendu.

VIII

Ez degulako ikusten  
egiten dan kalterik  
iñork ez degu pensatzen  
bide onez joaterik  
askoren barrenak daude  
txarkeriz beterik  
gorrotoa dagon arte  
ez dago pakerik.

IX

Sinistu ezin degu  
au batek esanda  
gertatutzen danari  
ezin antzemanda  
garai bateko bizitza  
gaur nora joan da  
orrela bizi bear da  
anaiak izanda.

X

Gure gazte denbora  
dadukat gogoan  
baserri guzietan  
sagardoa zeguan  
Txirrita eseita lasai  
kupela onduan  
berreztegu ikusiko  
olakorik munduan.

XI

Garai batean zer zan  
gure Errenteri  
emen sortu ziranak  
esan naute neri  
kupela asten zanean  
bukau arte segi  
umore ederrean danak  
da bertsoa ugari.

XII

Egun pasa bat egitea  
asko ziran jonak  
batez ere pezeta bat  
poltxikoan zonak  
lasai zurrut egiñez  
ziraden egonak  
obetogo izan ziran  
orduko aitonak.

XIII

Urtetan gora bagoaz  
indarrak gutxitzen  
eskerrak ala ere  
ez degu etxitzen  
saiatuaz al dana  
lagunak serbitzen  
beste egitekorik  
etzaigu gelditzen.

XIV

Amulleta Elkarteak  
dadukat gogoan  
Oarso Errebistare  
orretxen moduan  
al dana lagundutzeko  
pozikan nenguan  
geiago itzegino degu  
or bildutakuan.

